

Donostia - Pasai San Pedro

**ITSASALDEKO BIDEA
ULIA MENDIKO ITSASLABARRETAKO IBILBIDEA**



**CLUB VASCO
DE CAMPING**



ALCALDIA  **ALKATEGOA**
**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

ITSASALDEKO BIDEA – ULIA MENDIKO ITSASLABARRETAKO IBILBIDEA

Donostia – Pasai San Pedro

Donostiako parke naturalik garrantzitsuenean, Ulia mendia dagoen eremuan, gure hiria eta Pasai San Pedro batzen dituen bide bat, itsasertzetik doana, berreskuratu dugu.

Bide bikain honek, paisaia harrigarri eta oso ederrak eskaintzen dizkio ibiltariari. Itsasoa, zerua eta lurra batzen dira eta, egun garbietan, oso irudi politak sortzen dituzte. Itsasertz hori Gipuzkoako politenetakoa da, seguru asko, laburra baina birjina. **Hamahiru kilometro** daude hiriburutik marinelen herrira, euskal kostaldeko labarretatik bortitz eta bertikalenen gainean doazenak. Geldialdirik egin ezean, hiru ordu inguru behar dira ibilbidea egiteko. Bestalde, bi herriak batzen dituzten autobusak oso maiz pasatzen dira.

Donostiako Udalak eta Vasco de Camping taldeak kirolerako eta paseatzeko bide hori ireki dute, ohikoak ez diren esparru naturaletatik ibiltzea gogoko dutenek goza dezaten. **Udalak** bidea garbitu, ireki eta bere onera ekartzeko lan handia egin du eta **CVCK**, bere aldetik, bere gain hartu zuen ibilbidea sustatzeko konpromisoa. Horretarako, hori koloreko botatxoekin balizatu du eta galtzeko arriskua dagoen tokietan zutoinak jarri, ibilbidea erraztearren.

Ibiltzea gustuko dutenentzat egin dugu topo-gida hau. Egin beharreko urratsak, lurraren gora-beherak eta denborak aurkituko dituzu bertan. Mendiko ibilbidea da eta, hortaz, ekipo egokia eraman behar da, batez ere, oinetakoak. Badaude bi pasabide **zail samarrak**, baina bi saihesbide egokitu dira handik pasatu behar ez izateko, nahi ez bada behintzat. Ibilbide hori, gainerra, zatika egin daiteke, hainbat tokitan hartu eta utziz.

Paisaiaz gain, beste erakargarritasun batzuk ere eskaintzen dizkio ibilbide honek bisitariari, besteak beste, Pasai Donibane eta Pasai San Pedro ezagutzeko eta bertan bapo bazkaltzeko aukera. Hala, eguna ahaztezina izango da



DONOSTIATIK PASAI SAN PEDROra, ULIA MENDIKO labarren gaineko itsasaldeko bidetik. 13 km. 3 ordu. CVCK botekin balizatuta.

Hemen emandako denborak kalkulatzeko geldialdirik ez dela egiten jo dugu. Hortaz, bidaiariak paisaiari begiratzeko, inguruaz gozatzeko, mendia argazkietan ateratzeko nahiz atseden hartzeko egiten dituen geldialdiak gaineratu beharko ditu.

Donostiako Gros auzoan, Mariaren Bihotzaren elizan, Zurriola hondartzaren ekialdeko muturreran, hasten da bidea. Luis Pedro Peña Santiago itsasondoko pasealekuan aurrera egin, bukaeraraino, eta lurra hondatuta duen bide bat hartu. Itsasertzeko harrobitik hareharria garraiatzen zuen trentxoaren bidearen aztarna batzuk ikus daitezke. Handik ateratako gaiekin erai-kin asko egin ziren auzoan; denetan aipagarriena San Ignazio eliza da. Bideari jarraiki, zelai batera iritsiko gara eta, zaintzarako erabilitako eraikin militarren hondakin batzuen ondoan, bi arraildura handik itxiko digute bidea. Arrailduren eskuinetik doan bidea hartu behar dugu.



9 min - Bide estu batetik joan behar dugu. Aire-bidea da, balkoi modukoa, ezkerraldean sakana du eta ez dago oso zainduta. Eskuz egindako kable lodi bat dauka, zati hau gainditzeko balio diguna. Ez da zaila, baina ohituta ez daudenek eta bertigoa dutenek beste toki batetik joan beharko dute, Zemoria pasealekutik, hain zuzen (Iradi baserria, Arbola). Handik behera jaitsi eta gero, bideak bat egiten du hegiaren erditik zeharka Monpaseko hondakinetaraino igotzen denarekin. Itsasertzetik aurrera jarraitu, bukaeraraino, aurrerago ezin joan gaitzkeen tokiraino. Donostia ikuspegiari, bidea arin doa gorantz, sigi-sagan, Pirinioetako moduko ibilbide bikaina eginez Monpaseko hondakinetaraino.



22 min - Monpaseko hondakinak. Itsasoa eta lehenengo labarrak erakusten dituen behatokia. Kumbako Zuloa izeneko badia nabarmentzen da; han ehunka hegaztiak egiten dute habia. Hondakinok zerikusia dute hainbat garaitako base militarrekin, baina, hasiera batean, XVI. mendean, eraikin zibilak ziren, Aldundiarenak. XVIII. mendean (1740-1742), Karakaseko Erret Konpainia Gipuzkoarrak emandako kanoiak jarri ziren bertan. Harrez geroztik, deskatamendu txiki batzuk arduratu ziren itsasbazterrek zaintzeaz. Aipatzeko moduko gertaeren artean esan behar da artilleriak hemendik kanoikatu zuela hiria 1813ko abuztuaren erasoaldian. Gelak, tunelak, kasamatak eta bateriak atzean utzita, ondo markatutako bide bat ikusiko dugu, gorantz doana, zeharka, eskuinaldera pixka bat okertuta. Handik joan beharrean, ezkerrera jo behar dugu, itsaslabarren gaineko ertzetik, bideen labirintoan aurrera, landare desberdinak hazten diren lur abarotsu batean. Han diren hortentsiak zoragarri izaten dira udan.



31 min - Gure bideak bide zabal eta harriztatu batekin bat egiten du. Bide hori Kutralla iturrira joateko erabili ohi da, eta itsas ibilbideko zati zail samar batetik joan nahi ez dutenek handik jo beharko dute.

SAIHESBIDEA: ZEMORIA ETA ARBOLA (Iradi)

Esan bezala, bide honetako gunerik zailenetik joan nahi ez dutenek saihesbide honetatik jo beharko dute. Mariaren Bihotzaren elizaren ondoan dagoen lorategiko eskaileurretatik ateratzen den gurdibide aldapatsu eta eskaile-radun batekin hasten da. Zemoria pasealekua da. Ategorrietatik zetorren tranbia zaharraren ibilbideraino joan behar dugu. Egun, asfaltatuta dago. Hiria ikusiko dugu gure azpian eta, ikuskizuna berez zoragarria izanik, iluntzean, eguzkiaren argia ahuldu eta gaueko argiak pizten direnean, magiko, ahaztezin, bihurtzen da, Kurasaalaren kuboak nagusitzen direla. Arbola baserriaren azpian (Iradi), trenaren bidea hasten da, eta goitik doan errepidearen bihurgune handi baten azpiko tunel bateraino iristen da. Ezkerrean dagoen bidea hartuko dugu. Loitxikiko erreka zeharkatzen du, erdi ezkutuan, zuhaitzek osatutako ganga baten azpitik, gorantz, harresi txiki baten ondoan, eta itsasertzeko bidearekin bat egiten du.

16 min - Bideek bat egiten dute, mendi bizkarrean dagoen behatokira iritsi aurretik. Ikuspegi liluragarriak ditugu: Monpas eta itsasoa gure azpian. Saihesbidea hemen bukatzen da.

Behatokian gaudela, itsasertzaren ondoko bidea hartuko dugu. Muturreraino doan bidea eskuinean utzi. Hemendik aurrera, Josetxo Mayorren lurretan egongo gara. Mayorrek bidea zaintzen du, ardura eta maitasun handiz, eta horregatik haren lagunek "Josetxoren hiribide" eman diote izen. Trazatua harrigarria da. Landare asko ikusiko ditugu: urkiak dira nagusi. Bidea Kutralla iturriraino iristen da. XVIII. mendekoa da, eta gaur egun agortuta dago, zoritxarrez. Lehen garbileku bezala erabiltzen zenez, haren hormei mila istorio darizkie. Donostiar askok han garbitzen zituzten arropak. Idi gurdietan joaten ziren lehenbizi, Uliako tranbian gero. Pasadizo bat baino gehiago kontatzen da iturri horretaz. Batek dioenez, Londres hotelak ere erabiltzen zuen arropak garbitzeko.



37 min - Kutralla iturri eta Garbilekua. Hiru bide gurutzatzen dira hemen. Ezkerrekoa hartu behar dugu, hau da, itsasorantz doana. Tontor ikusgarri bat gaudituko dugu. Haren oinarrian plaka bat dago, ibilbide hau "Josetxoren hiribidea" dela esaten duena. Galtzada berrituta dago eta, garai batean, handik garraiatzen ziren inguruko harrobitik ateratako harriak. Ibilbidea bikaina da eta, esan bezala, Josetxok zaintzen du; itsas-labar zorigarriak ikusten ditugu handik; bidea sigi-sagan doa, gora eta behera, Animetako Muturraren (Punta de las Ánimas) aurreko talaiaraino. Muturrean, Ataloi harriak nagusitzen dira. Hareharrizko leize bat dago harriotan, higadurak sortua.

Behatokia baino berrogeita hamar metro lehenago, ezkerretik joko dugu Ataloi harrietaraino. Bidea zabala da gaur egun, baina lehen ondo zehaztu gabeko bidexka bat besterik ez zen, sasiak hartua.



53 min - Ataloi harriko leizea. Ataloiko Blayako lur malkartsuak ikusteko behatoki bakarra. Hegazti ugari ibiltzen da han. Leizea baino metro batzuk lehenago, Donostiako Udalak duela gutxi zabaldutako bide bat hartuko dugu. Lehen ondo zehaztu gabeko bidexka bat zen. Lehendabizi, aurrera goaz; gero, ezkererantz, itsasorantz, beherantz, Txoritxuluak esaten zaion zintzilikatutako bailararen hondorantz. Bailara horretatik itsasertzeko haitzetara joan gaitezke.



1:06 min - Txoritxuluak sakanaren hondoa. Berrito gorantz, garai batean bidexka ezkutua eta orain bide zabala den tokitik. Goialdetik, Donostiako ur zikinak kostatik itsasora, kilometro batera, eramaten dituen hustubidearen obrak ikus daitezke. Bidea ondo zehaztuta dago eta hustubidearen etxolako plazatxoan amaitzen da.



1:17 min - Hustubidearen etxola. Itsasertzeko harresiak ikusteko, onena da ezkerretik jo, harresiak ikusten diren tokiraino joan eta, gero, hustubidearen etxolara bueltatzea. Etxolaren inguruan, bidexka estua berriz, belardi batean aurrera egiten duena. Itsasoaren gainean V moduan irekita dagoen beste bailara zintzilikatu baten hondora jaitsiko gara.



1:24 min - Altu bailara zintzilikatua. Arrantzale eta marisko biltzaile asko joan ohi dira hara, lanpernak biltzera, batez ere. Itsasertza eta Baja Aundi izeneko harresi bertikalak erakusten dituen beste balkoi zoragarri bat da. Bidea Illurgitako badiaren mendebal-



deko ertzera hurbiltzen da, Illurgitako Baxuko Mutur horail eta forma orijinaletako gailurraren erpinaren azpitik. Orain, ibilbide osoaren tokirik basatienean sartuko gara. Bidezidorra aurrera doa, ezin ederragoak diren tokiak zeharkatuz. Garbi-garbia dago, eta Mendiolako kala ezaguna (Illurgita) inguratzeko tokirik aproposenak bilatzen ditu. Kala horrek maskor baten itxura du eta lehen Donostiako eta inguruetakoko jende asko hara joaten zen haren ur bare eta babestuetan bainatzera eta eguna pasatzera. Garai batean, itsas pinu garai zahar asko zeuden, tokiaren ederra areagotzen zutenak, baina orain biluzik dago.



1:55 min - Aldapa erdian, bidexka, ezinago ederra, Uliako alde hau zeharkatzen duen ohiko bidearekin batzen da. Han Errotaxarreta oihan sorgindua zegoen garai batean, baina haren jabeak, Madina jaunak, basoa bota eta toki liluragarri hori biluzik utzi zuen. Bidea hartu eta gora hasi bezain laster, Mendiola eta Herri Ametsa ikastolarantz, metro gutxi batzuk pasatu eta beste bide bat hasten dela ikusiko dugu. Lehen bidexka zehaztu gabe bat zen; beherantz doa, itsasertzerantz, Kalderatik. Ur depositu izandako Kalderatik hogeita hamar bat metrora, Errotaxarko iturri-garbilekutik eta arrantza-leen bordatik hurbil (Illurgitako kaxeta) igaroko gara –hobe haraino joan-etorria egi-tea–, eta gero Pasaiaiko Portuko Obra Batzordearen tunelaren ahora doan bidetik joko dugu. Eskuinean, mendia zeharkatzen duen beste bide bat ere badago, baina itxita.



2:10 min - Tunel batekin topo egingo dugu. Berrehun bat metro ditu eta sasitza baten azpitik doa. Ura Uliako alde honetatik hartu eta La Paz auzoko Moneda baserriraino eramaten zuen sarearen hondakinak dira. Tuneletik irtendakoan, bidexkak bat egiten du zapalduago eta markatuago dagoen beste batekin, aldapa erdian dagoen ohiko bidetik datorren batekin hain zuzen. Ohiko bide horretatik jarraituko dugu. Bata bestearengandik oso hurbil dauden bi ubide zeharkatuko ditugu, areka estu batetik. 1842az geroztik ura hiriburura eramateko baliatzen ziren. Bigarreanean, bidexka bat hartuko dugu, mendiko itsaslabar ikusgarrien eta bertikalenen ertzera iritsi arte. Han harresiek frontoien itxura dute. Soka bat dago han, Putakiyo izeneko harresi honen oinarrian dauden harrietara jaitsi nahi dutenentzat. Belar gaineko ibilbide hau kapritxo hutsa da: Jaizkibelen eta Platako Farola almenadunaren itsasertza ikusgai, eta hegaztiak ibiltariari laguntzen, gidatu ere egin nahi dutela iduri.



2:27 min - Azken bailara zintzilikatuaren goiko ertzean, Saltoko erreka, makurtasun handikoa. Belar fina zapalduz, kontu handiz jaitsi beharko dugu, bidea amildegiaren ondo-ondotik doalako. Hogeita hamar bat metroko igarobidea da, zail samarra eta, bustita egonez gero, arriskutsua izan daiteke. Azken itsaslabarren azpian doa. Alderdi hau zuloz beterik dago eta, hori dela eta, “gruyère” esaten dio jendeak, gazta frantses horren antza duelakoan. Goian, Platako Farola. Igarobide hori ibiltari trebatuentzat da; hain trebe ez direnek orain azalduko dugun saihebidetik jo dezakete.

Errekaren erretenetik jarraitu metro batzuk aurrerago, ertz baten hasieran dauden harrietaraino. Han, "Segurtasun Alderdia" dioen kartel bat ikusten dugunean, gora jo beharko dugu.

INGELES ITURRITIK DOAN SAIHESBIDEA

2:27 min - Saltoko errekararen bazterrean, jaitsi beharrean, ertzean gora egingo dugu. Zuzen-zuzen, malda erdian dagoen Uliako ohiko bideraino joango gara.

2:32 min - Bidexkak bat egiten du bide nagusiarekin eta Ingeles iturriraino eramaten gaitu. Ondo zainduta dago, eta ur gardenak ditu. Inguruetako jende asko hara joaten da ur bila.

2:39 min - Platako Farolako zelaia.



2:38 min - Platako Farolako zelaia. Portuaren sarreraren eta Jaizkibel itsasertzen gainera behatokia, itsasoaren ondoan erakusten duela. Izena arrantzaleek jarri zioten, itsasertzeko hartxabalek bustita daudenean zilarrezkoak ematen dutelako. Farola atzean utzi eta Trintxerpera doan errepidetik jarraituko dugu. Lehenengo sarreraren, ezkerrean, gurdibide bat hasten da, atsedeneku bateraino doana.



2:45 min - Atsedenekua, Pasaia gainera behatokia. Bideak beheara egiten du, eskailera batzuetatik, Zenokozuloa farotik, portuaren sarreraraino; hango pasealekutik eta Aizkorreta ontziolatik ontziralekuraino iristen da.




3:00 min - Pasai San Pedroko ontziralekua. San Pedro eta Donibane batzen dituzten txalupak oso maiz pasatzen dira. Alde zaharreko kale nagusitik parrokiako elizara iritsiko gara. Handik hurbil, herri hau eta Donostia batzen dituzten autobusak. Oso maiz pasatzen dira hauek ere.

Ibilbide hau mendi ibilbidea da, mota guztietako bideetan ohituta dauden ibiltarientzat egokia, beraz. Arropa eta oinetako egokiak behar dira. Ez da zaila, baina paseotxo bat ere ez da. Aldapak ez dira handiak, baina ibilbidea luzea da. Hortaz, horrelako bideetan ibiltzeko ohitura ez dutenek hobe dute bide honetan ez saiatzeari.

ITSASALDEKO BIDEA - ULIA MENDI

Donostia - Pa




— RECORRIDO


— VARIANTE

○ PASOS DELICADOS

IKO ITSASLABARRETAKO IBILBIDEA

sai San Pedro





CLUB VASCO
DE CAMPING



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián